

EUSKARA IKASTAROETAN MATRIKULATUTAKO IKASLEEI DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO ARAUTEGIA

2015/2016 ikasturtea



TXORIERRIKO
MANKOMUNITATEA

1. artikulua. Xedea

Deialdiaren xedea 2015-2016 ikasturtean zehar, homologaturik dauden euskalategi edo barnetegietan, helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egiten dituzten Txorierriko biztanleentzako diru-laguntzak emateko baldintzak arautzea da.

- Esklusioak

- Diru-laguntza hauetatik kanpo geratuko dira graduondoko, doktorego, master eta karrerako ikastaroak. Halaber, ez dira sartuko Boga moduko ikastaroak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak araturiko irakaskuntza (Hizkuntza Eskola Ofizialetakoak honen barruan sartuta daude) eta HABEren menpeko Udal Euskaltegietako ikastaroak ezta beste erakunderen batek antolatutako ikastaroak ere, esaterako: IRALE, HAEE, eta abarren programa espezifikoak.

Garraio gastuak ez dira ordainduko.

- Diru-laguntza hauetatik kanpo geratuko dira HABEren euskara maila edo baliokideak egiaztatze azterketak gainditu dituzten ikasleak (hau da B1,B2, C1 eta C2 mailak gainditu dituztenak), diru-laguntza hau Eusko Jaurlaritzari eska diezaiokete eta.

2. artikulua. Instantziak aurkezteko epea eta tokia

Eskabideak aurkezteko epea 15 egun baliiodunekoa izango da, 2016ko urriaren 3an hasita eta urriaren 21ean bukatuta (biak barne).

Eskabideak Derio, Larrabetzu, Lezama, Loiu, Sondika eta Zamudioko udaletxeetan jasoko dira eta bai Txorierriko Mankomunitateko Euskara Zerbitzuan bai udaletxeetan bertan aurkeztuko dira.

3. artikulua. Betekizunak

Eskatzaileek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- 16 urtetik gorakoak izatea edo 2016 urtean adin hori betetzea. Honenbestez, urte horretan eginiko matrikulak subentzionatuko dira.

- 2015eko urriaren 1etik edo lehenagotik Derio, Larrabetzu, Lezama, Loiu, Sondika edo Zamudioko udalerrietan erroldatuta egotea.

- Matrikula egiten den egunetik ikastaroa bukatzen den arte emaniko orduen %80 edo goragoko asistentzia edukitzea. Nahitaezko betebeharrangatik ez joatea edo gaitasun-bajak erakunde eskudunak justifikatu beharko ditu.

- Diru-laguntzaren xede den azpimaila gaindituta edukitzea.

- Eskatzen den azpimailarako edo bere baliokiderako aurretik diru-laguntzarik jasota ez izatea.

- Hasten den ikastaroa bukatzea. Ezin da azpimaila edo euskalategia aldatu erakunde eskudunaren baimenik izan gabe.

- Bekaren emakida dakarten baldintzak betetzen direla egiaztatze aldera behar diren jarduketak egiten baimentzea eta Txorierriko Mankomunitateak eskatzen dion informazio guztia ematea.

4.artikulua.- Eskabideak

Behar bezala betetako eskabideak idatziz zuzendu behar zaizkio Mankomunitateburuari, honekin batera igortzen den ereduari jarraituz.

Eskabideekin batera honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

- NANaren fotokopia.
- Errolda ziurtagiria, eta bertan noiztik erroldatuta dagoen agertu behar da.
- Langabeek LANBIDE txartelaren fotokopia aurkeztu behar dute behar bezala zigilatuta eta eguneratuta.
- Oinarrizko Errenta edota Gizarte Larraldiko Laguntzarik jasotzen duten eskatzaileek laguntza hori jasotzen dutela egiaztatzen duen agiria aurkeztu behar dute.
- Matrikula ordaindu dutela egiaztatzen duen jatorrizko agiria edo fotokopia. Barnetegien kasuan, bakarrik matrikulari dagokion kostua aurkeztu beharko da.
- Beste administrazioei eskatu eta, hala dagokionean, horiengandik jasotako diru-laguntzen derrigorrezko zinpeko aitortpena, eta baita ez dela inolako diru-laguntzarik eskatu ezta eskuratu ere. Bi kasuetan derrigorrezkoa izango da zinpeko aitortpena aurkeztea. (Ikus 1. eranskina).
- www.habe.euskadi.net orrialdean sartuta, "Ikaslearen ibilbidea-osa" agiria.

(Dokumentua lortzeko jarraibideak: Ikus 2. eranskina)

- Eskaera-inprimakian jasota geratuko da kontu zenbakia (IBAN kodea eta 20 digitu); halaber, bertan adierazi behar dira kontu horren titularraren izena eta NAN zenbakia.

Eskabideak ez baditu eskatutako baldintzak betetzen, interesdunari eskatu egingo zaio, hamar eguneko epean, aurkeztu ez dituen derrigorrezko agiriak aurkez edo izaniko okerrak konpon ditzan; halaber, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, bere 42. artikuluan agintzen dituen terminoetan ebazpena hartu ondoren, adieraziko zaio horrela egin ezean, ulertuko dela bere eskabidean atzera egin duela.

5.artikulua.- Diru- laguntzaren zenbatekoa

Emango den diru-laguntzaren zenbatekoa honakoa izango da:

- Oinarrizko Errenta edo Gizarte Larraldiko Laguntzarik jasotzen duten eskatzaileentzat: matrikularen %75 eta %100 bitartekoa.
- Diru-laguntzaren xede den ikasturte barruan langabezia geratzen diren langabetuentzat: matrikularen %50 eta %75 bitartekoa.
- Gainontzeko ikasleentzat: matrikularen %25 eta %50 bitartekoa.
- Ikasle bakoitzak gehienez 600€ko diru-laguntza jaso ahal izango du.

Arautegi honek arautzen dituen diru-laguntzen aurrekontu-muga dagokion aurrekontuan adierazitako kopuruetan ezarriko da.

6.artikulua.- Ebazpena

Eskabideak Mankomunitateburuaren Dekretu bidez ebatziko dira deialdia egiten den egunetik zenbatzen hasita eta gehienez sei hileko epean. Alabaina, ebazpen hori hartuko da Euskara Sailaren txosten teknikoa ikusi ondoren Mankomunitateko Euskara eta Gazteria Batzordeak eginiko proposamenaren arabera.

Epe hori igarotzen bada eskabidearen gaineko berariazko ebazpena jasota egon barik, eskabide hori ezeztatu egin dela ulertuko da; dena dela, horren ostean eskabidearen gainean berariazko ebazpena hartu ahal izango da.

7.artikulua.- Dirua itzultzea

Laguntza osoa edo zati bat eta dagokion berandutzako interesa itzuliko dira, Mankomunitatearen diru-laguntzen emakida arautzen duen ordenantzaren 26.artikuluan ezartzen denarekin bat etorritik.

Azken xedapena

Ordenantza honetan araututa ez dauden kontuetan Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatearen diru-laguntzen emakida arautzen duen ordenantzak arautuko du.

NORMATIVA DE CONCESIÓN DE SUBVENCIONES PARA EL ALUMNADO MATRICULADO EN CURSOS DE EUSKERA

Curso 2015/2016



Artículo 1.- Objeto

El objeto de esta resolución es regular las condiciones de concesión de ayudas para los y las habitantes del Txorierri por la realización de cursos de euskaldunización y alfabetización de adultos/as durante el curso 2015-2016 tanto en euskaltegis homologados como barnetegis.

- Exclusiones:

- No se considerarán como tal los cursos de postgrado, doctorados, másteres, carreras, cursos de Boga o similares. Enseñanza reglada por el Departamento de educación Del Gobierno Vasco (se incluyen aquí las Escuelas Oficiales de Idiomas) y cursos de los Euskaltegis Municipales dependientes de HABE ya subvencionados, ni carreras o cursos organizados por otras entidades, como programas específicos de IRALE, IVAP etc.

No serán subvencionables los gastos por transporte.

- Quedará excluido de esta convocatoria de subvención, el alumnado que haya aprobado los exámenes para la acreditación de los niveles de euskera homologados por HABE o equivalentes (es decir quienes hayan aprobado los niveles B1, B2, C1 y C2), ya que pueden solicitar esta ayuda al Gobierno Vasco.

Artículo 2.- Plazo y lugar de presentación de instancias.

El plazo para la presentación de solicitudes será de 15 días hábiles, comenzando el 3 de octubre y finalizando el 21 de octubre de 2016 (ambos inclusive).

Las solicitudes se recogerán en los Ayuntamientos de Derio, Larrabetzu, Lezama, Loiu, Sondika y Zamudio y se presentarán tanto en el Servicio de Euskara de la Mancomunidad del Txorierri como en el mismo Ayuntamiento.

Artículo 3.- Requisitos

Las personas solicitantes de las ayudas deberán reunir los siguientes requisitos:

- Ser mayor de 16 años o cumplirlos en 2016, subvencionándose las matriculaciones realizadas en dicho año.
- Estar empadronado/a en los municipios de Derio, Larrabetzu, Lezama, Loiu, Sondika o Zamudio, como mínimo desde el 1 de octubre de 2015.
- El alumnado deberá asistir al menos al 80% de las horas impartidas desde la fecha de su matriculación hasta la finalización del curso lectivo. La inasistencia por deberes inexcusables y bajas por enfermedad deberá estar justificada por una entidad competente.
- Haber superado el curso por el que se solicita la subvención.
- No haber recibido anteriormente subvención por el nivel solicitado.
- El curso comenzado deberá ser terminado. No puede cambiarse de nivel de euskaltegi sin la autorización del centro competente.
- Someterse a las actuaciones de comprobación precisas para verificar en su caso el cumplimiento de las condiciones que determinen la concesión de la beca y facilitar cuanta información le sea requerida por la Mancomunidad del Txorierri.

Artículo. 4 – Solicitudes.

Las solicitudes debidamente cumplimentadas se dirigirán por escrito a la Presidencia de la Mancomunidad, conforme al modelo adjunto.

Dichas solicitudes se presentarán acompañadas de :

- Fotocopia del DNI.
- Certificado de empadronamiento en el que conste la fecha.
- Las personas desempleadas deberán aportar fotocopia de la tarjeta de LANBIDE debidamente sellada y actualizada.
- Las personas solicitantes que sean beneficiarias de la Renta Básica y/o de las Ayudas de Emergencia Social deberán presentar documento justificativo de la percepción de dicha ayuda.
- Original o fotocopia del justificante de haber abonado la matrícula. En el caso de internados, deberán adjuntar un desglose del coste correspondiente únicamente a la matrícula.
- Declaración jurada obligatoria de las subvenciones solicitadas y de las obtenidas en su caso de otras administraciones, así como de que no se ha solicitado u obtenido ninguna otra subvención. (Ver anexo 1).
- Documento "Historial alumno-todo-". Disponible en la página web www.habe.euskadi.net. (Instrucciones para la obtención del documento: Ver anexo 2).
- En el impreso de solicitud deberá constar claramente el número de cuenta (código IBAN y 20 dígitos), así como el nombre y DNI del titular de la misma.

En el caso de que la solicitud no reúna los requisitos exigidos, se requerirá a la persona interesada para que, en un plazo de diez días, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 42 de la Ley 30/1992, de 26 de Noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Artículo 5. – Cuantía de la subvención.

El importe de la subvención que se concederá será:

- Entre el 75 y 100% del precio de la matrícula para las personas que sean beneficiarias de la Renta Básica y/o Ayudas de Emergencia Social.
- Entre el 50 y 75% del precio de matrícula para las personas desempleadas, debiendo producirse la situación de desempleo dentro del curso lectivo para el cual se solicita la subvención.
- Entre el 25 y 50% del precio de matrícula para el resto de alumnos/as.
- El importe máximo de subvención por alumno/a será de 600€.

El límite presupuestario de las subvenciones que se regulan en la presente Normativa, vendrá determinado en las cantidades reseñadas en el presupuesto correspondiente.

Art. 6.- Resolución

Las solicitudes serán resueltas mediante Decreto de Presidencia, a propuesta de la Comisión Informativa de Euskera y Juventud de la Mancomunidad, previo informe técnico del Departamento de Euskera, en el plazo máximo de seis meses a contar desde la fecha de la convocatoria.

En el caso de que transcurrido dicho plazo, no conste resolución expresa de la solicitud, se entenderá que la misma ha sido denegada, sin perjuicio de que con posterioridad sea resuelta de forma expresa.

Art. 7.- Reintegro.

Procederá el reintegro total o parcial de la ayuda y del interés de demora correspondiente, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 26 de la Ordenanza Reguladora de la concesión de subvenciones de la Mancomunidad

Disposición final

En lo no previsto en esta ordenanza específica se estará a lo establecido en la Ordenanza reguladora de la concesión de subvenciones de la Mancomunidad de Servicios del Txorierrri.